

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	HIGIENEA ETA SEGURTASUNA EDERGINTZA-ZENTROETAN	Iraupena	30
Kodea	MF0343_1		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Estetikako zerbitzu osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Azazkalen oinarrizko zainketa estetikoak	Iraupena	60
	Ilearen depilazio mekanikoa eta dekolorazioa (zeharkakoa)		90
	Eguneko makillajea		60
	Estetikako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0343_1 EKIPOAK PRESTATZEAN ETA BEZEROARI ARRETA EMATEKO ETA HURA KOKATZEKO ERAGIKETAK EGITEAN KALITATE-, SEGURTASUN- ETA HIGIENE-KONDIZIOAK ZAINTzea

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Edergintza-zentroetan maizen erabiltzen diren tresna eta aparatuak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko oinarrizko eragiketarako egitea.

EI1.1 Garbitasun, desinfekzio, esterilizazio eta asepsiarren kontzeptuak azaltzea.

EI1.2 Ekipo eta aparatuak zer materialez eginak diren kontuan hartuta, haiek garbitzeko, desinfektatzeko eta/edo esterilizatzeko metodoak egokiena hautatzea.

EI1.3 Azaltzea zer garrantzitsua den higie-arauak betetzea estetika-zerbitzuetan bezeroen eta profesionalen segurtasuna bermatzeko.

EI1.4 Erabilera bakarrek materiala erabiltzea zehazten duten arrazoiak deskribatzea.

EI1.5 Tresna eta aparatuei haien fabrikazio-materialaren arabera higie-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatzea.

EI1.6 Edergintza-zentroetan erabilitako ekipo eta aparatuak garbitzeko, desinfektatzeko eta/edo esterilizatzeko kasu praktiko batean:

- Garbitzeko baliabideak eta produktuak teknikaren arabera hautatzea.
- Desinfektatzeko produktuak prestatzeko behar diren kalkulak egitea.
- Erabilera bakarrek materiala higie- eta segurtasun-arauak betez kendu eta botatzea.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak erabiltzean norbera babesteko neurriak aplikatzea.

A2: Edergintza-zentro batek bete behar dituen higie-baldintzak betetzea, eta horretarako metodoak eta teknikak deskribatzea.

EI2.1 Edergintza-zentro bateko tresnak eta aparatuentzako higie-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoekin erabiltzen diren produktuak identifikatzea.

EI2.2 Bezeroa eta profesionala babesteko erabilitako materiala garbitzeko prozedurak deskribatzea, eta zer kutsatzaile izan litzaketen azaltzea.

EI2.3 Edergintza-zentro batean maizen aurkitzen diren kutsatzaile-motak zein diren azaltzea.

EI2.4 Edergintza-zentroetan higie-metodoak aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Erabiltzen diren altzari eta gainazaletarako higie-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak hautatzea.
- Teknikari arduradunak gainbegiratuta, bezeroa babesteko materialak garbitzea, desinfektatzea eta esterilizatzea.
- Produktu kosmetikoak egoera ezin hobean daudela egiaztatzea, haietako bakoitza aztertuz.

A3: Estetikako zerbitzu osagarrien bezeroei onarpen-, komunikazio-eta informazio-teknikak aplikatzea.

EI3.1 Bezeroei arreta eskaintzeko egoeretan maizen erabiltzen diren komunikazio-teknikak definitzea.

EI3.2 Bezeroari hainbat komunikazio-kanalen bidez arreta eskaintzeko prozesuaren faseak deskribatzea.

EI3.3 Zerbitzuaren arabera bezeroari estetikako-produktuei buruzko zer informazio garrantzitsu eman behar zaion identifikatzea.

EI3.4 Estetikako zerbitzu osagarrien bezeroei arreta eskaintzeko hitzeko eta keinu bidezko hizkuntza egokiena deskribatzea.

EI3.5 Bezeroak tratatzeko kontuan hartu behar diren portaera-arauak biltzen dituen zerrenda bat prestatzea.

EI3.6 Fixa teknika betetzeko informazioa lortzeko galdera zehatzak egitea.

EI3.7 Bezeroaren fitxa pertsonalak jasotzea, teknikariak gainbegiratuta.

A4: Estetikako zerbitzu osagarriak eskaintzean norberaren segurtasun- eta higie-arauak eta norbera babestekoak aplikatzea.

EI4.1 Profesionalak estetika-zerbitzuak eman haurretik hartu behar dituen higiene pertsonaleko neurriak deskribatzea.

EI4.2 Estetikako zerbitzuetan babesteko erabiltzen diren neurri eta ekipo pertsonalak eta profesionalak deskribatzea.

EI4.3 Zerbitzu-motaren arabera bezeroa prestatzeko eta babesteko prozedura deskribatzea.

EI4.4 Bezero bat egokitzeko eta prestatzeko kasu praktikoa batean:

- Hautatutako teknika aplikatzeko bezeroaren jarrera higieniko egokiena zein den azaltzea.
- Eskaini behar zaion zerbitzuaren arabera bezeroa babesteko neurriak aplikatzea.
- Produktu kosmetikoak emateko eta kentzeko behar diren tresnak eta materialak prestatzea.

EI4.5 Estetikako zerbitzuak eskaintzean profesionalak izan behar dituen jarrera higieniko egokiak deskribatzea, laneko arriskuak prebenitzeko araudia eta jarrera-higieneko araudia betetzeko.

EI4.6 Estetikako zerbitzuetan gerta daitezkeen arrisku-kasuei erantzun ahal izateko oinarritzko ekintzak deskribatzea.

EI4.7 Profesionalaren janzkerak eta higienek lanerako duten garrantzia deskribatzea.

A5: Estetikako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko teknikak aplikatzea.

EI5.1 Higiene- eta asepsia-tekniken aplikazio-prozesuaren eta emaitzen ebaluazio-irizpideak definitzea.

EI5.2 Larruazalaren azaleko higiene-zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen arrazoi teknikoak eta arretaren kalitateari dagozkionak zerrendatzea.

EI5.3 Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko neurriak deskribatzea.

EI5.4 Bezeroaren gogobetetze-maila egiaztatzea galderak eginez eta zuzenean behatuz.

Edukiak

1. Higiena, desinfekzioa, esterilizazioa eta asepsia.

- Mikroorganismoak eta parasitoak:
 - mikroorganismoen kontzeptua eta motak.
 - Edergintza-zentroetan zerbitzuak ematean transmiti daitezkeen mikroorganismo patogenoak.
 - Transmisio-moduak eta prebentzio-neurriak.
- Garbiketaren, desinfekzioaren, esterilizazioaren eta asepsiaren kontzeptuak.
- Materialak desinfektatu eta esterilizatzeko erabiltzen diren aparatuek.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko erabiltzen diren aparatuen ezaugarri teknikoak.
- Edergintza-zentroetan erabiltzen diren tresnen, aparatuen eta ekipoen garbitasuna, desinfekzioa, esterilizazioa eta asepsia.
- Edergintza-zentro bateko arau higieniko-sanitarioak.
- Edergintza-zentroetako garbiketa, desinfekzio eta esterilizaziorako jarduera-protokoloak.
- Desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak: fisikoak eta kimikoak.
- Edergintza-zentroak desinfektatzeko eta garbitzeko produktuak.
- Lan-ekipoa antolatzea eta zerbitzua eskaintzeko aurkeztea.
- Erabilera bakarreko materialak eta hondakinak desagerrarazteko prozedurak eta ingurumena zaintzeko protokoloa.

2. Bezeroaren harrera, komunikazioa eta bezeroari arreta eskaintzea:

- Bezeroa hartzeko eta arreta eskaintzeko teknikak.
- Edergintza-zentroetako komunikazio-arau oinarritzkoak.
- Estetikako zerbitzuen eta produktuen informazio-jarraibideak.
- Egokitzapen pertsonalerako eta lan-giroa egokitzeko arauak.
- Bezeroen fitxen ereduak: Datu-baseen oinarritzko ezagutzak.
- Kexa eta erreklamazioen aurreko prozedura-arauak.

3. Segurtasuna eta higiena edergintza-zentroetan

- Zerbitzu estetikoak emateko erabiltzen diren aparatu eta produktuak maneiatzeko segurtasun- eta higiene-arauak.
- Profesionalak babesteko neurriak eta ekipoak: Janzkera.
- Bezeroak babesteko neurriak eta ekipoak.
- Profesionalaren jarrera higienikoak, jarreratik eratorritako arriskuak gutxitzeko.
- Bezeroaren jarrera higienikoak, jasotako zerbitzuetatik eratorritako arriskuak gutxitzeko.
- Edergintza-zentroetako lanetik eratorritako gaixotasun profesionalik ohikoena:
 - Edergintza-zentroetan maiz erabiltzen diren produktuekiko kontaktuak eskuetan eragin ditzakeen gaixotasun profesionalak.
 - Horrelako arriskuak saihesteko prebentzio-neurriak.
- Apaindegietako zerbitzuetako bezeroek jasan ditzaketen arrisku arruntenak.
- Estetikako zerbitzuak eskaintzean gerta daitezkeen larrialdi-egoerarako jarduera-arau oinarritzkoak.
- Larrialdietarako botikina.

4 Edergintza-zentroetako zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa eta kontrola.

- Edergintza-zerbitzuetako kalitatearen kontzeptua, ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Edergintza-zentroetako zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak.
- Kalitatea edergintza-zentroetan zerbitzuak aplikatzean eta saltzean.
- Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
- Edergintza-zerbitzuak eskaintzean lortutako emaitzak baloratzea eta gertatutako desbideratzeak zuzentzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Estetikako zerbitzu osagarriak.